

# Etorkinak balira...

Uztailaren 31n, Kataluniako *El Periódico*-n: “Hogeita hamar urteko senegaldar bat hil da borrokaldi batean. Hiru norbanakok eraso dute kalean egun argitsuan. Biktimak droga trafikoagatik aurrekariak zituenez, baliteke hori izatea erasoaren zioa”.

Albistean, kazetariak lehenengo paragrafoan kontatzen du erasotzaileek “nazionalitate espainiarra” dutela. Hala koetan komeniko litzateke, biktimaren jatorriari garrantzi gehiago eman izanaren arrazoia ezagutzea eta horren efektuaz hausnartzea.

Abuztuaren 1ean. *La Vanguardia*-n: “Salouko hilketaren erasotzaileetako bat atxilotu dute”. Hirugarren paragrafoan: “Biktimak hamar urte zeraman Saloun bizitzen, Carles Büigas etorbide ezagunaren inguruko lokaletan ibili ohi zen; hezibide oneko pertsona lasaia deskribatu dute bertakoek. Hala ere, beste iturrien arabera, droga-trapitxeoan jarduten omen zuen”.

Orain, imajina ezazu albiste hauetako protagonista, hau da, biktima, emakumea dela. Argi dago trataera desegokia dela, ezta? Eraiketa matxistei dagokionean, feministak etengabe kritikatzeko ditugun joerak errepikatzen dira: “Hil dute” esan ordez, “hil da” esatea; auzokoen (aurre) iritziei pisua ematea (“pertsona jatorra/normala/ lasaia zen”); biktimari errua botatzea (kasu honetan droga trafikoan zebilela nabarmenduz), edota albistea “gertakari” bezala definitzea.

Kasu honetan, nahiz eta biktima beltza eta erasotzaileak txuriak izan, arrazakerian oinarritutako gorroto delitua izan daitekeela ez da inondik inora aipatzen.

Rosa Cobo soziologia irakasle feministaren artikulua publikatu genuen *Pikaran* hiru egun lehenago, uztailaren 28an. *Sanferminetan* hainbat gizon lelo matxistez janzten edota apaintzen direnez, hauxe idatzi zuen: “Ez da ulertzen



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Espainiako Estatuan zein autonomia erkidego askotan emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako legediak garatu dira. Euskal Herriko mugimendu feministak lortu du jai esparruetan sexu indarkeria ikustaraztea eta horren kontrako protokolo eta kanpaina ugari garatzea. Eraso arrazista eta LGTBfobikoak, ordea, ezkutuan mantentzen dira

Nafarroako Fiskaltzaren erantzuna [deliturik ez ikustea, alegia]. Txapa eta kamiseten erabiltzaileak historikoki zapal dutako beste taldeak balira, juduak, beltzak edo etorkinak, erantzuna zein ote litzake jakin nahiko nuke”.

Feministen ahotan maiz entzuten dut honelako baieztapena: “Urtero 60 hilketa arrazista edo homofobo gertatuko balira, gizarteak eta instituzioek ez zuten onartuko”. Logika horrek ezjakintasun galanta adierazten du. Ez al dakite migrazio legedia eta politika xenofoboaren ondorioz askoz ere pertsona gehiago hiltzen direla Europako kostetan? Benetan uste al dute Espainian zein Frantzian gorroto delitu arrazista eta LGTBfobikoak gehiago zigortzen eta gaitzesten direla?

Azken hamarkadan, indarkeria matxistari buruz hobeto informatzeko hamaika kode deontologiko publikatu dira. Espainiako Estatuan zein autonomia erkidego askotan emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako legediak garatu dira. Euskal Herriko mugimendu feministak lortu du jai esparruetan sexu indarkeria ikustaraztea eta horren kontrako protokolo eta kanpaina ugari garatzea. Eraso arrazista eta LGTBfobikoak, ordea, ezkutuan mantentzen dira. *Sanferminetan* eraso homofobo bat (ziur aski askoz gehiago dira) gertatu zen eta soilik *Shan-gay* aldizkari LGTBak publikatu zuen.

Areago, “etorkinak balira”, “homosexualak balira” argudioak androzentrikoak dira. Begirada interseksionala premiazkoa da, eraso sexistak eta indarkeria matxistak azaldu eta salatzerakoan diskurtso feminista etnozentrakoa eta heterosexista izan ez dadin.

Diskurtso feminista indartzeko horrelako konparazio gorrotagarriak erabiltzea benetan traketsa eta mingarria da. Antirrazista ez den diskurtso feminista benetan traketsa eta mingarria da. ■